


2007. urtean, Estatuak Euskal Autonomia Erkidegoan dituen administrazioen superabita 1.747 milioi eurokoa izan zen, eta EAEko administrazioena 1.445 milioi eurokoa

Euskal Autonomia Erkidegoko herri administrazioen superabita, guztira, BPGaren %4,8 izan zen

EUSTATen datuen arabera, Euskal Autonomia Erkidegoan dauden herri administrazioek (euskal administrazioak eta EAEn kokatuta dauden Estatuko administrazioa eta Gizarte Segurantza), 2007. urtean, 3.192 milioi euroko superabita izan zuten finantzatzeko ahalmenari dagokionez, hau da, BPGaren %4,8.

Euskal Autonomia Erkidegoko herri administrazioek ehuneko bi hamarren hobetu zuten 2006eko BPGren balioa. Era berean, Espainian, herri administrazioen sektorearen surperabita BPGare %2,0tik 2006an %2,2ra pasa zuen 2007an. Horrela, 27 kidez osatutako Europar Batasunean hobekuntza handiagoa izan zen: defizitak behera egingen jarraitu du: 2006ean PGaren %1,4 izan zen eta 2006an %0,8.

1. grafikoa. Herri administrazioen finantzatzeko ahalmenaren (+) edo beharrianaren (-) bilakaera (BPGaren %)



Iturria: Eustat

Euskal Autonomia Erkidegoan herri administrazioek finantzatzeko gaitasuna hobetu zuten, finantzazkoak ez diren baliabideek gehikuntza handiagoa izan zutelako finantzazkoak ez diren enpleguekin erkatuta: 2006ekoen aldean %9,7 gehitu ziren aipatutako baliabideak, eta finantzazkoak ez ziren lanpostuak %9,2.

Euskal Autonomia Erkidegoko herri administrazioen barruan sartzen diren erakunde-sektore guztiek izan zituzten 2007. urte horretan superabitak, baina ez zen kasu denetan modu berean eman:

- **EAEn kokatuta dauden Estatuko administrazioak eta Gizarte Segurantzak superabita hobetu zuten: 2006. urtean 1.562 milioi eurokoa izan zen eta 2007. urtean 1.747 milioi eurokoa. Osagaiak banaketuz gero, EAEn kokatuta dagoen Estatuko administrazioak saldo soberakina gehitzen jarraitu du: 2007an 1.561 milioi eurokoa izan zen eta 2006ean 1.505koa. EAEn kokatuta dagoen Gizarte Segurantzak ere izan zuen superabita, 186 milioikoa, hau da, 2006. urtean lortu zuten 57 milioren aldean, 128 milioi gehiago.**
- **EAEko administrazioek saldo positiboa hobetu zuten: 2006. urtean 1.262 milioikoa izan zen eta 2007. urtean 1.445 milioikoa.** Eraitza hori ondoko saldo positibo hauek batuz lortu zuten: 709 milioi Eusko Jaurlaritzaren erakundearen artean, 86 milioi Arabako foru eta toki erakundeetan, 568 milioi Bizkaikoetan eta 80 Gipuzkoakoetan.

1. taula: Euskal Autonomia Erkidegoko herri administrazioen aurrezki garbia eta finantzatzeko ahalmena (+) edo beharrizana (-). 2007. urtea. (Mila eurotan)

Unitatea: mila euro

	1.- Finantzazkoak ez diren baliabideak	2.- Finantzazkoak ez diren erabilerak	3.- Aurrezki garbia	4.- Finantzatzeko ahal. (+) eta beh. (-)
Herri administrazioak	24.903.770	21.711.365	5.427.817	3.192.406
EAEn dauden Estatuko administrazioa+Gizarte Segurantza	10.246.133	8.499.058	2.091.471	1.747.075
EAEn dagoen Estatuko administrazioa	3.231.108	1.669.664	1.869.746	1.561.444
EAEn dagoen Gizarte Segurantza (**)	7.213.896	7.028.265	221.725	185.631
EAEko administrazioak (*)	17.153.842	15.708.511	3.336.345	1.445.330
Eusko Jaurlaritza	8.668.851	8.721.547	1.573.752	709.103
Araba	2.815.241	2.728.270	260.652	86.972
Bizkaia	8.784.390	8.215.757	1.033.756	568.633
Gipuzkoa	5.325.701	5.245.079	468.186	80.622

(*) Eusko Jaurlaritzaren barruan honakoak sartzen dira: adm. erak. autonomoak, EHU, Osakidetza era sozietate publiko batzuk.

Araba, Bizkaia eta Gipuzkoaren barruan honakoak sartzen dira: foru aldundiak eta horien adm. erak. autonomoak era sozietate publiko batzuk; eta Toki erakundeak

(**) Gizarte Segurantzaren barruan daude: Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Nagusia, Gizarte Segurantzako Institutu Nazionala, Itsasoko Gizarte Institutua, INEM-Estatuko Enpleguaren Zerbitzu Publikoa, LI mutuak, LG eta Soldadak Bermatzeko Fondoa (FOGASA).

Iturria: Eustat

2. taula: Herri administrazioek azken eskarian duten partaidetza. Euskal Autonomia Erkidegoa (mila eurotan). 2000-2006

unitatea: mila euro

	2000	%	2001	%	2002	%	2003	%	2004	%	2005	%	2006	%	2007	%
Azken kontsumoko gastua	30.847.065	100,0	33.020.950	100,0	34.843.030	100,0	37.402.290	100,0	40.519.702	100,0	43.691.686	100,0	47.139.691	100,0	50.347.972	100,0
Herri adm.en azken kontsumoko gastua	5.866.817	19,0	6.574.732	19,9	6.963.085	20,0	7.551.277	20,2	8.016.736	19,8	8.471.692	19,4	9.131.828	19,4	9.994.823	19,9

Kapital-eraketa gordina	10.917.500	100,0	11.688.578	100,0	12.541.881	100,0	13.489.319	100,0	15.040.639	100,0	16.422.809	100,0	17.993.556	100,0	19.625.186	100,0
Herri adm.en kapital-eraketa gordina	1.227.090	11,2	1.327.166	11,4	1.437.383	11,5	1.508.409	11,2	1.493.468	9,9	1.506.473	9,2	1.656.706	9,2	1.880.579	9,6

Barne-eskaria	41.764.565	100,0	44.709.528	100,0	47.384.911	100,0	50.891.609	100,0	55.560.341	100,0	60.114.495	100,0	65.133.247	100,0	69.973.158	100,0
Barne-eskari publikoa	7.093.907	17,0	7.901.898	17,7	8.400.468	17,7	9.059.686	17,8	9.510.204	17,1	9.978.165	16,6	10.788.534	16,6	11.875.403	17,0

Iturria: Eustat

Barne-eskari publikoak barne-eskari osoan izan zuen parte-hartzea 2006. ekitaldiaren aldean gora egin zuen eta 2007. urtean %17,0 izan zen.

Herri administrazioen azken kontsumoko gastua, EAEko azken kontsumoan izandako gastuaren %19,9 izan zen 2007. urtean; hots, 2006ekoa baino lau hamarren altuagoa.

Inbertsio publikoak gora egiten jarraitu zuen. 2006. urtearen aldean %13,5 gehitu zen.; beraz, herri administrazioek 2007. urtean %9,6ko inbertsioa egin zuten EAEko ekonomiaren Kapitalaren Eraketa Gordinean, 2005. urtean baino %0,4 handiagoa. Erakundeen arabera, **2007ko inbertsioen %95,6 euskal administrazioei egokitu zitzaizkien, eta EAEn kokatuta dauden Estatuaren administrazioei %5,39 baino ez.** Euskal Autonomia Erkidegoko Herri administrazioek 2006. urtean 1.540 milioioko inbertsiotik 1.779 milioioko inbertsiora gora egin zuten. Estatuak Euskal Autonomia Erkidegoan dituen administrazio eta Gizarte Segurantzaren erakunde inbertsioak behera egin zuen, 2006. urteko 117 miliotik 2007. urteko 101 miloiara jaitsiz.

Argibide gehiago:

Euskal Estatistika Erakundea

Donostia-San Sebastian kalea, 1 01010 Vitoria-Gasteiz

Tel.: +34-945-01 75 00 Faxe: +34-945-01 75 01 Helb. elek.: eustat@eustat.es

Harremanetarako pertsona: Clara Ramos Hernández

Tel.: +34-945-01 75 97 Faxe: +34-945-01 75 01

Prentsa-oharrak Interneten: www.eustat.es

Datu-bankua: www.eustat.es/bancopx/euskara/indice.asp